

GIL 132 Galea lurmuturra- Tunelbocako nummuliteak



Flyscharen azaleratzea Galea lurmuturrean.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 22' 34,56" N

Long.: 3° 2' 3,26" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 497.226,19 m

Y: 4.802.687,8 m



Nola iritsi

Getxo herrian, hartu Elexalde aldera doan bidea, eta, handik, errepide batetik (Galeako errepidea), zeinak Abraren eskuinaldeko ertzeko labarra inguratzen baitu, Galea lurmuturrera iristen da.



Eozenoko flyscharen zati hareatsua, non turbidita-geruzen alde basalean dauden nummulitidoen lumakela agertzen baita.



Nummulitidorik handienak eta kontzentrazioarik handiengan olistostromoetan egoten dira.

Deskribapena

Nummulitidoak foraminifero bentonikoak dira; Goi Paleozenoan azaldu ziren, eta, gaur egun, familia horretako espezie batzuk bizi dira oraindik. Nolanahi ere, Eozenoan garatu zen gehiena.

Organismo zelulabakarrak dira, eta oskol espiraldun bat dute (inboluta edo eboluta), forma lentikular bikonbexukoa, nahiko zapala. Nummulitidoek genero gutxiko baina espezie askoko talde taxonomiko bat osatzen dute.

Galea lurmuturrean azaleratzen den Bizkaiko sinklinorioko ardatzetik hurbil, nummulitidoak turbidita-geruzen alde basalean daude (Bouma sekuentziaren "a" mailan), eta Goi Lutetiarrekoak dira (Orue-Etxebarria, 1983). Turbidita-geruza horietako nummuliteak aloktonia-adibide argi bat dira. Izan ere, organismo horiek ez ziren bizi arroka eratu zen tokian; haraino arrastatu zituzten, plataforma kontinentaletik, uhertasun-korronteek. Material terrigenoak garraiatzean eta metatzean, klastoak tamainaren arabera bereizi ziren, eta nummulitidoen oskolak geruzaren alde basalean geratu ziren.

Maila turbiditikoak, Gorrondatxe hondartzatik Galea lurmuturreraino, sarriagoak eta lo-diagoak dira seriearen goiko aldean, eta, zati batzuetan, olistostroma bikainak daude; haiek daukate, matrizean, nummulitido handiaren oskolak.

Ruiz de Gaonaren arabera, aztarnategi hau oso aberatsa da nummulite eta diskoziklinatan, beste makroforaminifero batzuk izateaz gainera. 1950eko lanean, *Nummulites* generoko dozena bat espezie baino gehiago aipatzen ditu. Lau espezie *Assilina* generokoak dira; beste hainbeste, *Operculina* generokoak; hiru *Asterodiscus* generokoak; eta ia dozena bat espezie *Discocyclina* generokoak.



Nummulitidoen lumakelaren itxura, eskuko lagin batean.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 117, GIL 90, GIL 49, GIL 44, GIL 96, GIL 35, GIL 127, GIL 118.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 51, GIL 52, GIL 138.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa			●	
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- Bouma, A. H. (1962). *"Sedimentología de los depósitos flysch: un procedimiento gráfico para la interpretación de facies"*. Elsevier, Amsterdam, 168. or.
- De Jorge, E. (1936). *El Eoceno en Vizcaya*. Notas y Publicaciones del Ins. Geol y Min. de España.
- Orue-Etxebarria X., (1983). *"Los Foraminíferos planctónicos del Paleógeno del Sinclinatorio de Bizkaia (Corte de Sopelana - Punta de la Galea)"*. Kobie, 13, 175-249.
- Ruiz de Gaona, M. (1946). *"El Terciario Nummulítico fértil en Getxo (Vizcaya)"*. Not y Com. Inst. Geol. Min. Esp., 16, 185-215
- Ruiz de Gaona, M. eta Colom, G. (1950). *"Estudios sobre las sinecias de los foraminíferos eocénicos de la vertiente meridional del Pirineo (Cataluña-Vizcaya)"*. Estudios Geológicos, 12, 293-434.